

Santixabeletako Pintura Lehiaketak (Haurrentzat eta helduentzat)

Antolatzailea:

USURBILGO JAI BATZORDEA

Babesleak:



Usurbilgo Udala

Usurbil

2019ko ekainaren 28an

HAURRENTZAKO XVII. Pintura Lehiaketa

EDUKIA

Santixabeletako Jai Batzordeak haurrentzako XVII. Pintura Lehiaketa antolatu du.

NORI DAGO ZUZENDUA?

Adin tartea: 2-16 urte (biak barne).

SARIAK

Lehiaketa irabazten dutenek pinturako materiala eta diploma eskuratuko dituzte. Sariak honakoak izango dira:

2, 3 eta 4 urtekoen artean: sari bat

5 urtetik 13 urte bitartean: urte bakoitzeko sari bat

14, 15 eta 16 urtekoen artean: sari bat

Honenbestez, guztira, 11 sari banatuko dira. Horrez gain, parte hartzeagatik zertxobait emango da.

GAIA

Pintura Lehiaketaren gaia hauxe izango da:
Santixabel jaietan, zer da gehiena gustatzen zaizuna?

LANEN ERAKUSKETA

Pintura Lehiaketan egindako lan guztiak ikusgai jarriko dira frontoian.

NOLA PARTE HARTU LEHIAKETAN

Pintura Lehiaketan parte hartzeko etorri ekainaren 28an Usurbilgo frontoira, arratsaldeko 15:30ean. Lehiaketan parte hartzeko materiala bertan utziko da. Hala ere, komeni da orriaren azpialdean jartzeko euskarriren bat ekartzea (Karpeta bat edo liburua...). Nahi izanez gero, pintatzeko materiala etxetik ekar daiteke.

SARI-BANAKETA

Sariak ekainaren 28an bertan banatuko dira Usurbilgo frontoian.

OHARRAK

Epaimahaiak ikusten badu aurkeztutako lanek behar besteko kalitaterik ez dutela, sariak eman gabe gera litezke.

HELDUENTZAKO I. Pintura Lehiaketa

EDUKIA

Santixabeletako Jai Batzordeak Helduentzako I. Pintura Lehiaketa antolatu du.

NORI DAGO ZUZENDUA?

17 urtez gorakoek parte har dezakete.

SARIA

Bi lagunentzako afaria.

GAIA

Santixabel jaietan, zer da gehiena gustatzen zaizuna?

LANEN ERAKUSKETA

Lan guztiak ikusgai jarriko dira frontoian.

NOLA PARTE HARTU LEHIAKETAN

Ekainaren 28an, 15:30ean frontoian izango da lehiaketa. Parte hartzeko materiala bertan utziko da.

SARI-BANAKETA

Saria ekainaren 28an bertan banatuko da frontoian.

OHARRAK

Epaimahaiak ikusten badu aurkeztutako lanek behar besteko kalitaterik ez dutela, saria eman gabe gera liteke.